

## / Nabarmentzekoak

- > 133.000€ euskara sustatzeko herritar, ikastetxe eta elkartearen artean (2. or.)
- > Calle del Remolino flamenkoa Neguko Bidaia kontzertu didaktikoen zikloa hasteko (4. or.)
- > Getxon dauden 33.627 etxebizitzetatik soilik mila bat baino apur bat gehiago dago benetan hutsik (5. or.)



**Garazi Sánchez**  
surflariak eskuratu  
du 2018ko Getxoko  
kirolari onenaren  
saria (3. Or.)

**Odol-ateratzea.** Hilak 24, osteguna, Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldean.

**Magia ikuskizuna euskaraz.** Hilak 24, osteguna, 09:00 eta 11:00etan Romo Kultur Etxean, eta 19:00etan Azebarri kultur elkartearen. Helduentzat. Antolatzailea: EGIZU. Doan.

**A-  
GENDA**

**Batzorde Informatiboak eta Erakunde Autonomoetako Kontseilu Errektoreak jendaurrekoak izango dira, hiritarrei aukera emanez bertaratu eta parte hartzeko, eta udal aurrekontuak onartzeko prozedura berria arautuko da**

## EAJ/PNV, PSE-EE, PP eta Herritarrak-Ciudadanosen arteko hitzarmena, Udal Araudi Organikoa aldatzeko

Udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) akordioa egin du PP eta Herritarrak-Ciudadanos alderdiekin Getxoko Udalaren Udal Araudi Organikoa (UAO) aldatzeko; hitzarmena onartzeko erabakia urtarrileko osoko bilkuran hartuko dute. Nobedade handienak bezala, honako hauek proposatzen ditu: udal aurrekontuen tramitazioaren erabateko garapena; Bozeramaileen Batzordearen arautzea (egungo erregelamenduak egiten ez duena); batzorde informatiboak jendaurrekoak izatea; eta hiritarren parte-hartzea ere arautzea bai aipatutako batzordeetan bai osoko bilkuretan zein Erakunde Autonomoen Kontseilu Errektoreetan, azken gai horren araupetzea oso mugatua baita gaur egun.

Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, jendaurreko informaziozko izapiderako epea zabalduko da, gutxienez 30 eguneko, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko eta, horrelakorik izatekotan, horien inguruko erabakia hartu eta behin betiko onartzeko. Araudiaren aldaketa hurrengo udalbatzaren agintaldiaren hasieran indarrean egotea aurreikusita dago. Indarrean dagoen UAO 1986ko abenduaren 23ko osoko bilkuran onartu zen eta horrez geroztik aldaketa txikiak izan ditu, bere edukia aldetik garrantzi txikia izan dutenak.



### EAJ/PNV, PSE-EE, PP eta Herritarrak-Ciudadanos:

*“Lantaldean parte hartzerakoan izan den adostasunerako borondatea azpimarratu nahi dugu, lau alderdi desberdinek bermaturiko azkeneko proposamen bat lortzeko funtsezkoa izan baita; proposamenak Udalbatzaren %70aren babesa du, Udalaren funtzionamenduaren oinarritzko araua egungo errealitate juridikora gaurkotu eta egokitze aurrerakuntza garrantzitsua delarik, baita herritarren parte-hartzearen alorrean ere”.*

### Aldaketa aipagarriak

- Batzorde Informatiboak eta Erakunde Autonomoetako Kontseilu Errektoreak jendaurrekoak izango dira, hiritarrei aukera emanez bertaratu eta parte hartzeko.
- Batzorde Informatiboaren edo Erakunde Autonomoetako Kontseilu Errektorearen gai-ordenari dagokion puntuan interesa duten pertsona edo elkarteek aipatutako puntuan hitz egin ahal izango dute.
- Batzorde Informatibora edo Erakunde Autonomoetako Kontseilu Errektoreara etorritako hiritarrek galde-eskeen txandan ere hitz egiteko aukera izango dute.
- Hiritarrei aukera emango zaie osoko bilkuretan mozioak aurkeztu ahal izateko, aldeztetik udalerriko pertsona helduen %1ek aurkeztuko den proposamen hori babesten duela egiaztatzen bada.
- Udal erregistroan izena emanda duten elkartei aukera emango zaie osoko bilkuretan mozioak aurkeztu ahal izateko, aldeztetik udalerriko pertsona helduen %1ek aurkeztuko den proposamen hori babesten duela egiaztatzen bada.
- Udalbatzako eztabaiden eta galde-eskeen txandan herritarren parte-hartzearen inguruko arautegi berria (hitz egiteko txandaren denbora finkatu eta arautuko da).
- Udal aurrekontuak onartzeko prozedura berria arautuko da.
- Udal aurrekontuei lotuta Euskadiko Tokiko Instituzioen Legean ezarritako partaidetza bidezko prozesua garatzeko beharra jasotzen da espresuki.
- Bozeramaileen Batzordea arautuko da, orain arte Udal Araudi Organikoan jasotzen ez zena.

## Arenasek Koparen erreplika jasoko du titulua lortu zueneko mendeurrenaren lehenengo ekintzan

Espainiako Futbol Federazioak (RFEF) Errege Koparen erreplika bat emango dio Arenas Clubari, talde beltz-gorriak 1919ko maiatzaren 18an Bartzelonaren aurka lortu zuena, hain zuzen ere. Klubak titulu hori lortu zuela ehun urte betetzen direla eta antolatutako jardueraprograma barruko lehenengo ekintza izango da. RFEFko lehendakaria den Luis Rubialesek emango dio Kopa taldedari datorren larunbatean, urtarrilaren 26an, Arenasek Santanderreko Racingen aurka Gobelan jokatu duen Ligako partidua hasi baino lehen. Jatorrizko garaikurraren erreplika 1937. urtean galdu zen, klubaren egoitzan gertatu zen sutearen ondorioz.

Jarduera-programaren aurkezpena iragan asteartean, hilak 15, egin zen eta horren buru izan ziren Franqui Egusquiaguirre Arenaseko lehendakaria, Carlos Aguiló

zuzendaria eta Imanol Landa (hirurak argazkian), alkatea. Bertan, aurten ospatuko diren ekitaldi nagusien berri eman zen, horietako batzuk oraindik egiaztat-



tu barik dituen arren mendeurrenaren harira eratutako batzordeak. Horrela, Postetxeak oroitzapenezko zigilu bat argitaratuko du Getxoko Filatelia Elkartearen laguntzarekin; RKen aurkeztuko da maiatzean. Horrez gain, Errege Kopan Arenasek egindako ibilbideari buruzko liburu bat argitaratuko da. Bi hitzaldi antolatuko dira, futbolaren lehen urteei eta kopa txapelketari buruzkoak. Eta lagunarteko partidak jokatu dira Barça ko beteren eta Athleticen kontra -konfirmatzeke daude bi partida horiek- eta torneo bat, harrobiko futbolarietara. Maiatzaren 18an, larunbatean, urteurrenaren egunean, herri-bazkaria ospatuko da, ligako azken partida hasi aurretik.



### URTARRILAK 17 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** Villamonteko haur-liburutegian, 18:00etan, "Un poquito de autoestima, por favor" (gaztelaniaz, 5-10 urte) Cataplina-ren eskutik.

**Literatura solasaldia.** Algortako Kasinoan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-idazketa tailerraren eskutik Ricardo Pligiaren "Plata quemada" liburuar buruzko topagunea.

**Getxon zuzenean.** Areetako Glass Grill Urbano tabernan, 20:00etan, The others (pop-rocka). Sarrera dohainik.

**Gizatiar.** Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. Hitzaldia "Hazkuntza pertsonala eta coachinga zaldiek". Hizlaria: Inmaculada Romero (gizarte langilea eta coacherra zaldiek). 18:15ean San José Obrero parrokiako areto nagusian.

### URTARRILAK 18 OSTIRALA

**Zine kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Anahí Berneriren "Alanis" pelikularen proiektzioa (hizk.: ingelesa; 16 urte-tik gora). Sarrera: 3,50€

**Castinga musikalerako.** 18:00etatik 20:00etara Galea Elkarte (Jolastokieta 4, Areetan) "Piratas del Caribe" musikalerako. 9-16 urte bitarteko neskek. Tel.: 679396013.

### URTARRILAK 19 LARUNBATA

**XI. Neguko Bidaia zikloa. Kontzertu didaktiko-musikalak.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Calle del molino taldearen kontzertua (flamenkoa). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€). Abonamendua: 25€ (15€).

**Ingurumen Aretoa.** Familientzako Escape Room-a: "Zaborreta dokto-rea". Beharrezkoa da alde zuzenetik izena ematea. 10:00etatik 14:00ak arte. Doako jarduera. Tel.: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

### URTARRILAK 20 IGANDEA

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Stubby, un héroe muy especial". Gaztelaniaz. 7 urte-tik gorakoentzat. Sarrera: 2,50€.

**Ingurumen Aretoa.** Txiki taile-rrak 6-14 urte bitarteko umeentzat: "Egin itzazu zure elur bola". 10:30etik 13:30era. Doako jardue- ra. Informazio gehiago: tel. 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

**Mendi irteera.** Arrigorrista (Iturrieta mendia, Araba). Antolatzailea: Etorbizuna Mendi Taldea. Izena emateko: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) eta 606 63 71 28 (whatsapp).

### URTARRILAK 21 ASTELEHENA

**Deustobide ikastaroak.** Matrikula

otsailaren 1era arte. 4. orrialdea ikusi. **Argazkigintza-ikastaroa:** has-tapena. Matrikula otsailaren 1era arte. 4. orrialdea ikusi.

### URTARRILAK 24 OSTEGUNA

**Odol-ateratzea.** Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsaldez.

**Getxon zuzenean.** Kirol Portuko Silver's Tavern pubean, 20:00etan, Sinbanda (popa). Sarrera dohainik. **Magia ikuskizuna euskaraz.** Hel-duentzat, Imanol Ituñorekin, 09:00 eta 11:00etan Romo Kultur Etxean, eta 19:00etan Azebarri kultur el-kartearen, EGIZUK antolatuta. Doan.

**Gizatiar.** Romo-Areetako Emakumeen elkarte. Batzar orokorra eta karguak berritzea, 18:00etan lehenengo deialdian, eta 18:30ean, bigarren, Romoko San José Obrero parrokiako areto nagusian. Beharrezkoa izango da bazkide txartela eguneratuta eta zigiluarekin aurkeztea.

**Mugabarik.** Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkarte. Musika buruzko triptikoa: Beethovenen piano kontzertuen azterketa. Hizlaria: José Quisilant Montero (pianista). Lehenengo hitzaldia: "1. kontzertua". 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

**Hitzaldia.** "Iraultza kubatarren 60. urtemuga". Hizlariak: Juan Manuel Hernández (Ezkerretik Foroa) eta Lazaro Oramas (Euskadi-Cuba Elkarte). Antolatzaileak: Ezkerretik Foroa eta Asociación Euskadi-Cuba.

### URTARRILAK 25 OSTIRALA

**Zine kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Raúl de la Fuente eta Damian Nenowen "Un día más con vida" filmaren proiektzioa eta foruma. 12 urte-tik gorakoentzat. Sarrera: 3,50€.

**Kontzertu didaktikoa.** Hari musika tresnak. 11:00etan, udal eskolentzako zuzendua eta 18:00etan, familientzako, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan.

### URTARRILAK 26 LARUNBATA

**XI. Neguko Bidaia zikloa. Kontzertu didaktiko-musikalak.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, General Lee taldearen kontzertua (rockabilly). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€). Abonamendua: 25€ (15€).

**Ipuin kontaketa: Storytime.** Romo Kultur Etxean, 11:00etan, Kids&Us Algorta-Getxoren eskutik, "The Dressmaker". Ingelese. Familia osoarentzat. Sarrera dohainik. **Ingurumen Aretoa.** Helduentzako tailerra: Erlezaintzaren hastapenei buruzko ikastaroa. Beharrezkoa da alde zuzenetik izena ematea. 10:30etik 13:30era. Doako jarduera. Tel.: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).

### URTARRILAK 27 IGANDEA

**Haur antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Burbuja", 7 Burbujas taldearen eskutik. Testu barik. 4 urte-tik gorakoentzat. Sarrera: 5€.

**Ingurumen Aretoa.** Familientzako tailerra: "Sortu zure argazki-mar-koal!" 10:30etik 13:30era. Tel.: 688 88 35 96 eta [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus).



- **Neska euskalduna** prest dago adinekoak zaintzeko eta/edo arropa lisatzeko. Esperientzia-

duna eta txostenekin. Arratsal- dez. Tel.: 635 806 619.

- **Lan bila** nabil, orduka edo bar- neko gisa, etxeko lanak egin, garbiketa edo zaharrak jagote- ko. Tel.: 699 16 06 92.

- **Salgai** garaje plaza ireki bat Aiboa kalean. Etxe berria. Tel.: 629 27 40 44.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia- ren egiazko- tasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

## 133.000€ euskara sustatzeko herritar, ikastetxe eta elkarten artean

Udalak aurtin 57.000€ zuzendu ditu euskara ikastea eta erabil- tzea sustatzeko diru-lagun- tzetarako. Horietatik 44.000€ izango dira baliabide ekono- miko nahikorik ez dutela fro- gatzen duten getxotarrantzat. Eskaerak aurkezteko epea da- torren irailaren 30ean amaituko da.

Bestalde, 1.000€ izango dira Uda- leko eta erakunde autonomo- tako langileek eta zinegotziek euskara ikasteko; 4.000€ gida- baimena ateratzeko azterketa euskaraz egiten duten 17 eta 23 urte arteko gazteentzat; 1.000€ elkarteetako aisialdiko begira- le eta zuzendari agiria lortzeko euskaraz eta 7.000€, errotuluak, olanak, pertsianak, biniloak eta

ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko. Lau kasuetan eskae- rak aurkezteko epea abenduaren 31n amaituko da.

Gainera, Udalak beste zerbitzu batzuk mantenduko ditu, tar- tean, itzulpen zerbitzua, ahol- kularitza, ekitaldietarako aur- kezle euskaldunen zerbitzua, eta merkatariei nahiz ostalariei doan eskaintzen dizkien itzul- pen eta maketazio zerbitzuak. Informazioa: <http://www.getxo.eus/eu/>

### 38.400€ heziketa zentroeta- rako

Bestalde, Udalak 38.400€ bana- tuko ditu ikasleen artean eus- kara sustatzeko ikastetxe eta guraso elkarten artean, 182

jarduera aurrera eramanez ahal izateko. 33.600€ urtean zehar garatuko diren 163 jarduereta- rako izango dira eta 4.800€ eus- kal aste, euskararen egun edo antzekoetarako.

### Euskal kultura sustatzea

Azkenik, euskal kultura susta- tzen duten ekintzak antolatuta edo garatzen dituzten pertso- na eta elkarten artean Udalak beste 37.700€ banatuko ditu. Olentzeroa dela eta antolatzen diren ekitaldietarako 20.450€ zuzenduko dira, Euskara jar- duerak antolatzeko 10.000€ lo- kal baten gastuetarako, 6.000€ Korrikari lotutako jarduereta- rako eta 1.000€ San Juan jaira- ko.

## Oroimen aktibo eta smartphoneari buruzko tailerrak pertsona nagusientzat RKEN

60 urtetik gorakoentzako oroimen aktiboari buruzko tailerra izango da Romo Kultur Etxean, RKEN, Udalak, Uribe Aldeako Gurutz Gorriarekin batera antolatuta, Getxo Lagunkoien programaren barruan. Saioak asteartero izango dira RKEko hirugarren solairuan, 10:00etatik 11:30era eta 25€ko prezioa izango du.

Bestalde, urtarrilaren 17an, 24an eta 31n smartphone erabiltze- ko hasiera-ikastaroa izango da, 10:30etik 12:30era, aipatutako en- titateek ere antolatuta. Tailerraren prezioa 10€-koa izango da.

Gainera, datozen hilabeteotan osasun hitzaldien zikloarekin jarraituko da, Osakidetza- ren Aree- tako Osasun Zentroaren laguntza-

rekin. Hurrengo saioa urtarrilaren 29an izango da, aurretiazko bo- rondatei buruz.

### Informazio foiletua

Udalak 60 urtetik gorakoentzat RKEN dauden jardueri buruzko informazio foileto berria argita- ratu du. Hirugarren solairuan eskaintzen diren zerbitzuak gi- zonezkoen eta emakumezkoen ile-apainketa, podologia eta masajista dira. Getxo Kirolakek bostgarren solairuko gimnasioan mantentze gimnasia, pilates eta yoga eskaintzen ditu. Hilabete bakoitzeko lehenengo larunbate- tan dantza orkestrarekin izaten da ekitaldi aretoan, eta azken osteguneko pelikula bat proiekt- atzen da.

## Aldaketa Atsedeen Zerbitzua erabiltzeko epean

Udalak Atsedeen Zerbitzua era- biltzeko epean aldaketa bat onartu du, etxeko lagun- tza zerbitzuaren barrukoa da mendekotasuna duten edo iza- teko arriskua duten pertsonen senideentzat. Udalak prezio pu- blikoa arautu arte doakoa den zerbitzu horrek zaintzaileari berarentzako denbora izateko aukera ematen dio, etxetik kan- po jarduera zehatzak egin ahal izateko, profesional adituen bi- tartez ziurtatuta zaintzen den pertsonari arreta egokia ematen, eta aldi berean, pertsonak etxean eta inguruan geratzen.

Zaintzaileentzako ordu kopurua (12 eta 48 orduen artekoa) arta- tutako pertsonen mendekotasun mailaren arabera izaten da. Ordu horiek urtarrilaren 2an has- ten dira disfurtatzen, eta onartu- tako aldaketaren arabera, urteko azken egun baliodunera arte, eta ez orain arte indarrean zegoen bezala abenduaren 28ra arte.



### Bisita Mari Carmen Peña Campori bere 100 urtebetetzeagatik

Imanol Landa Alkateak, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek lagunduta, Mari Carmen Peña Campo bisitatu zuten aurreko astean, 100 urte bete zituela eta. Emakumea Getxon jaio zen eta bizitza osoa eman du bertan. Orain Andra Mariko erresidentzian bizi da eta hor jaso zituen Aixerrotaren oroigarria, lore sorta bi eta koadro bat.



### "Eguberri kreaizale eta jasangarria" kanpainaren zozketa

Algortako Dendak-ek orain dela egun batzuk eman ditu *Eguberri kreaizale eta jasangarria* izeneko kanpainan zozketatutako hiru txeke. Aurtin irabazleak on- dorengo hauek izan dira: Cristina Córdoba 300€ jaso zituen (bere izenean bere senarrak, Iñaki Zabalak, hartu zuen saria); Candi Celadak 200€ eta M<sup>a</sup> Pilar Alegriak 100€. Hiruiek kanpainan parte hartu duten 27 establezimendu- tan gastatu ahal izango dute dirua, horietan Gabonetan erosketa egin zutenen artean banatu zituzten txartelak.

“Getxo Sasoi Sasoi” Kirolaren 12. Galan 350 pertsona inguru bildu ziren

## Garazi Sánchez surflariak eskuratu du 2018ko Getxoko kirolari onenaren saria

Garazi Sánchez surflariak jaso zuen Getxoko 2018ko kirolari onenaren saria, Udalak Olatua itsas bidaiekin terminalean iragan asteen antolatutako *Getxo Sasoi Sasoi* Kirolaren 12. Galan. Sari horrekin, rider getxotarrak denboraldi bikainari amaiera eman dio: Europako hirugarrena da, Espainiako txapelduna eta Japonian jokatuak Aloha Cup txapelketan urrezko domina eskuratu zuen (selekziokoa jokatu zen). Epaimahaia Getxo Kirolareko eta udal teknikariek nahiz herrian kirolarekin lotura duten erreferentziazko pertsonak direnek osatu zuten, eta junior mailan, Olatz Etxebarria judoka eta Rafa Vilallonga belar hockey jokalaria, eta senior mailan, Pablo Paredes eskubaloia jokalaria ere saritu zituzten.



Garazi Sánchezek alkatearen eskutik jaso zuen saria

Garazi Sánchez pozik zegoen eta jasotako saria eskertu zuen, 2018ko kirolari onena izendatzen duena: *“nire bizitza kirolaren inguruan ibili da beti. Garaipenak eta porrotak alde batera utzita, kirolari hezkuntza edo kultura kutsu handiagoa ikusten diot eta pertsona gisa eman didan guztia da gauzarik garrantzitsuena. Oso pozik nago surfean profesional moduan aritu naitekeelako; nire ametsa eta nire grina da”*. 2019 urteko helburuei begira, kirolariak aurreratu zuen, aurreko urteetan bezala, maila teknikoan eta lehiaketa-mailan hobetzen jarraitu nahi duela, *“baina aurten Tokioko olimpiadetarako sailkatzeko dagoen aukeraren ilusia gehiturik; izan ere, gogotsu nago abentura berri hori aurpegi emateko”*.

Imanol Landa alkateak bestalde, edizio honetako goiburua aipatu zuen galan zehar, *“Guztien arteko kirola, nahiz eta egiten den modalitatea banakakoa izan, kirolarien, talde teknikoaren eta familiaren eta ingurune sozialaren arteko laguntza eta lankidetzaren emaitza onak lortzeko funtsezkoa dela gogoratzeko. Hau kirolak irakasten diren ikasketen handienetako bat da, eta baita ere ezinbestekoa bizitzako eremu guztietan”*.



Olatz Etxebarria judoka, Rafa Vilallonga belar hockey jokalaria, Garazi Sánchez eta Pablo Paredes eskubaloia jokalaria (bere aitak ordezkatu zuen), sari nagusirako hautatutako lau kirolariak

Hori dela eta, Landak eskerrak eman zizkion *“klubek eta elkarteek, kirolariak eta ikastetxeek osatutako komunitateari, haien lan eta inplikazioarengatik. Eta bereziki eskerrak gaur saririk jaso ez arren, Getxoko kirolari guztientzat ezinbestekoak izan eta izaten jarraitzen duten pertsona guztiei, haien laguntza eta babesarengatik. Izan ere, gaur merezimenduz sarituak izan diren ki-*

*rolariak ondo dakite, haien lorpenen atzean, beti pertsona batzuk daudela, eta haien laguntzak kirola guztien artean egiten dugula gogorarazten digu”*.

### Sari kolektiboak

Getxoko kirolaren jain 350 bat pertsona bildu ziren, eta baita ere sarituak izan ziren Getxoko Aixerrota Boleibol Klub

Taldeko gazteen taldea, emakumezkoen kategorian, eta RC Jolasetako belar hockey-ko taldea, gizonezkoen kategorian. Senior taldeei dagokienez, sariak jaso zituzten Bizkerre Futbol Klubeko nesken taldeak eta Fadura Tennis Klubeko mutilen taldeak.

### Sari bereziak

Sari berezien atalean, Hockey Stick Getxo Klubaren sortzaileak, Verónica Grandek, *Berdintasuna indartuz* saria eskuratu zuen, berdintasuna sustatzeagatik; Getxo Arraun Taldeko Jorge Pineda arraunlariak, berriz, desgaitasunaren bat duten kirolarientzako *Marka hautsiz* saria lortu zuen; Koldo Gorrotxategik *Kiroltasuna* saria Getxo Errugbian darman ibilbide luzearengatik; Trirunners Running Klubak *Getxo Berrituz* berrikuntzarako saria; Juan Carlos Larreak *Getxo Zabala* saria, piraguismoa sustatzeko Getxo Kayaka klubean egindako lanarengatik; eta José Luis Ribedek *Aitzindariak* saria, belarekin lotuta kirol ibilbide goresgarria egiteagatik Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Klubean.



Saritutako pertsona guztien taldeko argazkia

**Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan egingo dute, urtarrilaren 19tik otsailaren 23ra bitartean**

## **Calle del Remolino flamenkoa Neguko Bidaia kontzertu didaktikoen zikloa hasteko**

Calle del Remolino talde flamenkoak datorren larunbatean, urtarrilak 19, 19:30ean, hasiera emango dio Neguko Bidaia izeneko kontzertu didaktikoen zikloari, kontzertuak Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan izango dira. Calle del Remolino musikari gaztez osatutako taldea sustrai flamenkoaren eta flamenko berriaren artean aritzen da eta arte horren esentziak era fresko eta gaur egungoan transmititzen ditu. Publikoari eskainiko dioten kontzertuan uztartuko dira Enrique Vacaren gitarra kementsu eta sortzailearen erritmoa, Mónica Nuñezaren ahots harrigarria, eta Ledian Mola eta Darío Camposen sekzio erritmikoak; bertan gozatu ahal izango ditugu bai flamenkoaren ohiko doinuak bai modernoak.

### **Gainerako egitaraua**

Ohikoa denez, kontzertuak larunbatean izango dira, aipatutako orduan, eta otsailaren 23ra bitartean egingo dira.

Calle del Remolinoren emanaldiaren ostean hurrengo hauek izango dira: General Lee (rockabilly), urtarrilak 26; Trivium Klezmer (Klezmer, musika eklektikoa), otsailak 2; Goio Gutiérrez Trio (rock progresiboa), hilak 9; Aurkene Núñez & Marco Borge (abesti iberomerikarra), hilak 16; eta Gonzalo Tejada Quartet (jazz), hilak 23.

Musika Eskolak antolatutako ziklo honen helburua da *“estilo anitza gerturatzea publikoari, euskal eszenako artistei eta taldeei protagonismo berezia eskainiz”*. Ohikoa denez, saioak amaitu ondoren artistek solasaldi interesgarrietan hartuko



dute parte publikoarekin.

Saio bakoitzeko sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da, baina sei kontzertuetarako abonamendua erosteko aukera ere badago, 25 eurotan. Musika Eskolako ikasleentzat sarrerak 3 eurotan salduko

dira eta abonamendua 15 eurotan.

Talde bakoitzari buruzko informazioa zabalteko, egitarau osoa kontsulta daiteke webgunean: <http://www.getxo.eus/eu/musika-eskola/actividades/neguko>

## **DEUSTOBIDE ikastaroak**

Urtarrilaren 21etik otsailaren 1era bitartean zabalik izango da epea DEUSTOBIDE Herritartasun Eskolako ikastaroetan parte hartzeko; ikastaroak Deustuko Unibertsitateak antolatzen ditu, Kultur Etxearen laguntzaz. Martxoaren 5etik maiatzaren 28ra bitartean honako hauek egongo dira: *El reto de las vanguardias: atrevete a escuchar la música del siglo XX* eta *Euskal Herriko erai-kin sinbolikoak*. Lehenengoa 17:00etatik 18:30ak arte eta bigarrena 19:00etatik 20:30ak arte izango dira.

Ordutegi horretan ere eskainiko dira: *Musulmanes/as entre nosotros/as: (Neo) Fundamentalismo islámico e Islamofobia*, eta *La gran guerra (1914-1918)*, martxoaren 7tik maiatzaren 23ra bitartean. Horiek guztiak Algortako Kultur Etxean izango dira eta prezioa da 50€ ikastaroko.

### **Argazkigintza ikastaroa: hastapena**

Bestalde, aipatutako epean argazkigintza hastapenaren ikastarorako izena emateko aukera ere egongo da. Ikastaroa Villamonteko Kultur Etxean egingo da, martxoaren 4tik ekainaren 10era bitartean, astelehenetan (gainera, igandeetan zortzi saio praktikoa izango dira). Ikastaroaren prezioa 95€ da eta ezinbestekoa da réflex kamera digitala eramatea (edo esku-funtzioak dituen kamera).

Kasu bietan, izena eman daiteke aurrez aurre Algortako eta Romoko Kultur Etxean, edo [talleresaula@getxo.eus](mailto:talleresaula@getxo.eus) helbidera bidaliz izena-emateko orria. Hemen daude eskuragarri: [www.getxo.eus/deustobide2](http://www.getxo.eus/deustobide2) (lehenengo kasuan) eta [www.getxo.eus/taillerrak](http://www.getxo.eus/taillerrak) (bigarrenean).



## **Marina Goñiren estudioak “Clap” nazioarteko diseinu saria irabazi du**

Marina Goñi getxotarraren estudioak Iberoamerikako Clap Nazioarteko Diseinu sarietan aitormena lortu du, 2018ko liburuxka edo promozio- edo publizitate-liburuxka sorta kategorian. Estudioak, marka diseinuan espezializatuak, saria lortu du Abad produktuen diseinurako enpresarentzat egindako proposamenagatik. Enpresa hori ere Getxokoa da eta 2018an AixGetxo! saria irabazi zuen.

Saritutako diseinua oso katalogo-objektu singularra da, Abad neba-arreben proposamena osatzen duten altzariak

eta materialak erakusten duena. Marina Goñiren aburuz *“Abad marka ‘Product designers, texture collectors’ kontzeptupean eraikitzen da. Hori dela eta, bere katalogoarentzat pieza bat asmatu genuen bildumazaleek euren laginak sailkatzeko erabiltzen dituzten kutxetan inspiratuta. Horrela, produktuaren katalogoak euren produktuen argazkiak ezezik, bere unibertso osoa ere erakusten du: materialak, maketak eta testurak”*. Clap sariak, diseinuarekin lotutako hainbat erakunderen bitartez, Iberoamerikarako nazioarteko bikaintasun erreferentea ezartzen dute.



## **Aitormena Amalia Fidi umeen osasun mentalean eta garapenean egindako lanagatik**

Amalia Fid Barrenetxea getxotarra Ilustre Academia de las Ciencias de la Salud Ramón y Cajal erakundeak akademia horretako kide numerario izendatu du, 35 urtetan zehar umeen osasun mentalean eta garapen psikoebolutiboaren arloan egindako ibilbide profesionalagatik. Izendapen horren bitartez, *“entitateak bermatzen du profesionalak osasun arloan erreferente bihurtzeko, bere curriculumerako sari preziatu hau lortuz eta akademiaren taldean sartuz”*.

Ramón y Cajal Osasun Zientzietako Akademiako kide numerarioak diren pertso-

nak, Amalia Fidekin egin duten bezala, osasun arloko profesionalen artean hautatzen dira: zientzia arloan izen ezaguna dutenak, zientziaren garapenerako eta medikuntza edo beste osasun zientzia batzuen aurrerapenerako lan egiten dutenak, sektore horietan praktika onak eraberrituz eta sustatuz.

Amalia Fid Algortako Centro Fid-en kudeatzailea eta zuzendaria da. Haurren Garapenerako eta Arreta Goiztiarreko Zentro baimendua eta izendatua da, eta zerbitzu horiek eskaintzeko Bizkaiko Foru Aldundiarekin itundua.

# 902 dira 'kudeagarriak', hots, ez dira ez ohiko etxebizitza ez bulegoa, eta ez daude salgai edo alokatzeko

## Getxon dauden 33.627 etxebizitzetatik soilik mila bat baino apur bat gehiago dago benetan hutsik

Getxon dauden 33.627 etxebizitzetatik 1.028 baino ez daude benetan hutsik, hau da, ez dira gaur egun ohiko etxebizitza gisa erabiltzen; hori guztia Udalak iaz eskatutako inkestaren ondorioetan jaso da. Izan ere, udalerrian hutsik dagoen etxebizitzaren fenomenoak ikerterako proiektu aitzindaria bihurtu da ikerlan hori. Hutsik dauden 1.028 etxebizitzetatik 902 *kudeagarriak* dira, hau da, ez dira ez ohiko etxebizitza ez bulegoa, eta ez daude salgai edo alokatzeko dauden etxebizitzaren merkatuaren barruan sartuta.

Aipatutako azterlana Gobernuak (EAJ eta PSE-EE) EH Bildurekin etxebizitzaren alorrean adostutako hitzarmenaren zati bat da. Horri esker, hutsik dauden etxebizitzak aztertu, zenbatu eta karakterizatu dira, horrela, Getxoko etxebizitzaren benetako okupazio-maila zein den jakiteko eta, ondoren, hutsik dauden etxebizitzak eta horien mobilizazioa kudeatzeko politikak egokiak planifikatzeko. Udalerrian dauden 33.627 etxebizitza guztietatik erroldatutako pertsonarik gabeko 3.371 etxebizitzaz osatutako lagin bat erabili da azterlana egiteko. Bertan, erroldatutako pertsonarik gabeko etxebizitza ugari antzeman dira; hala ere, ur kontsumo nabariak zituzten, eta, beraz, etxebizitza horien erabilera jarraitua egiten ari zela antzeman zitezkeen.

Hala, egindako landa-lana ikusita, ondorioztatu da hutsik egon daitezkeen etxebizitzaren (erroldatutako pertsonarik gabekoak) erdia baino gehiago (% 58,1) ohiko etxebizitza gisa erabiliak izaten ari direla: lautik hiru etxebizitzaren ja-



beek edo horien senitartekoei erabiltzen dituzte, eta gainerako etxebizitzak alokairuan dauden errentariak. Etxebizitzaren % 11,4 bigarren bizitxe gisa erabiliak izaten ari dira, eta gainerako % 30,5a hutsik dauden etxebizitzek osatzen dute, hain zuzen ere.

Horrenbestez, ondorioztatu da hutsik dauden 1.028 etxebizitza daudela Getxon. Horietatik 126 *aktibo* daude, hau da, merkatuan alokatzeke edo saltzeke daude, eta gainerako 902 etxebizitzak *kudeagarriak* dira, hau da, hutsik daude, ez dira bigarren bizitxe gisa erabiliak izaten ari eta ez daude salmenta- edo alokairu-eskaintzetan jasota. *Kudeatu daitezkeen* 902 etxebizitza horiek erroldaren arabera hutsik dauden etxebi-

zitzak gisa identifikatutako etxebizitzak (erroldatutako pertsonarik ez dutenak) laurden bat da, gutxi gorabehera.

Hutsik dauden etxebizitza gehienak Algortan daude, eta atzetik ditu Areeta, Andra Mari eta Romo.

Etxebizitzak hutsik egotearen zergatiari dagokionez, kontsultatu diren pertsonen hainbat arrazoi eman dituzte. Besteak beste, alokairuen edo hirigintza-inbertsioen bidez etxebizitzok errenta-iturri gisa erabiltzeko arrazoia eman dute gehienek; beste batzuek, ordea, senitartekoen gordeta ditzutela adierazi dute, baita lan-, hezkuntza- nahiz osasun-arrazoiengatik lekualdatzeak aipatu ere.

Etxebizitzaren Legeari jarraiki, egindako lana oinarri gisa erabiliko da hutsik dauden etxebizitzaren erregistro bat egiteko. Hala eta guztiz ere, arau horren araudia garatu arte itxaron beharko da bertan jasotako aurreikuspenak aplikatuak izateko. Era berean, udalak beste neurri batzuk hartzeko lan egingo du, hutsik dauden etxebizitzaren erabilera sustatzeko.

Amaitzeko, Udalak eskerrak eman nahi ditu. Alde batetik, hiritarrei, ikerketa prestatzeko beharrezkoak ziren datuak lortzeko haiek eman duten laguntza handiagatik; eta bestetik, higiezin agentziei ere, azterlana prestatzeko horiek egin duten ekarpen garrantzitsuegatik.

Aginduen a. mejorar Getxo  
Lagundea Getxo kudeatzen



Urtarrilaren 12tik 23ra • Del 12 al 23 de enero

### PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK. I. FASEA

2020

### PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS. FASE I

[www.getxo.eus/partehartu](http://www.getxo.eus/partehartu) • [www.getxo.eus/participa](http://www.getxo.eus/participa)



- ... PARTE HARTZEKO BIDEAK:**
  - Webgunea:** [www.getxo.eus/partehartu](http://www.getxo.eus/partehartu)
  - Fadura, Gobela eta Andra Mari kiroldegietan eta Herritarren Arretarako Bulegoetan atondutako kutxak.**
  - E-maila,** formularioa eskaneatuta bidaliz: [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus)
  - Algorta, Areeta eta Bidezabalgo metro-geltokien inguruan atondutako postontziak.**
  - Karpak:**
    - Asteazkenean, urtarrilaren 16an:** Bidezabalgo metro-geltokiaren inguruan.
    - Ostegunean, urtarrilaren 17an:** Algortako metro-geltokiaren inguruan.
    - Ostiralean, urtarrilaren 18an:** Areetako metro-geltokiaren inguruan.
- ... VÍAS PARA PARTICIPAR:**
  - Formulario web:** [www.getxo.eus/participa](http://www.getxo.eus/participa)
  - Urnas** en los polideportivos de Fadura, Gobela, Andra Mari y Oficinas de Atención Ciudadana.
  - Email,** enviando el formulario escaneado a: [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus)
  - Buzones** habilitados en el entorno de las estaciones de metro de Algorta, Areeta y Bidezabal.
  - Carpas:**
    - Miércoles, 16 de enero:** inmediaciones de la parada de metro de Bidezabal.
    - Jueves, 17 de enero:** Inmediaciones de la parada de metro de Algorta.
    - Viernes, 18 de enero:** Inmediaciones de la parada de metro de Areeta.

# Udal talde politikoaren iritzia



## EKONOMIA ETA ENPLEGUA, GURE BI ARDURA

Ekonomia, ekintzaileei babesa ematea, berrikuntza sare bat eratzea eta Getxon enplegu gehiago eta hobe lortu ahal izateko erremintak dira EAJ-PNVren ardura nagusiak. Duela lau urte ekonomia suspertzeko konpromisoa hartu genuen, eta hori ere betetzen ari gara. Hala jaso genuen bere garaian gure hauteskunde programan: "Gure helburua da Getxo hazaraztea ekonomia jardueran eta aberastasunean, kohesioan nahiz gizarte justizian, bai eta bizi kalitatean erreferentzia izateko berrespenean ere. Getxo dinamikoago baten aldeko apustua egiten dugu, jarduera ekonomikoaren protagonismoa nabarmendu eta indartuko duena". Konpromiso egiaztagarria da, eta hala erakusten du abenduan % 8,9ra

jaitsi den Getxoko langabezia tasak. Udal gobernuak Getxolanen bitartez garatzen dituen proiektuak eta datuak dira hobekuntza horren eredu, eta hori frogatzen duen hainbat eta hainbat adibide daude. Bat: kontratazioarako deitutako laguntzak, otsailaren 8ra arte eska daitezkeenak. Guztira, 253.500 euro baino gehiagoko aurrekontua dute. Bi: diru-laguntzak. 248.000 euroko aurrekontua dute bideratuta Getxoko dinamizazio ekonomikoaren inguruan lan egin eta gure herriarentzako onurak dakartenentzat. Horiek ere otsailaren 7ra arteko epea dute. Hiru: GETXO MEETING programa, Getxoko ekintzaileei eta enpresaburuei zuzendutakoa. Hamabostean behin egiten diren topaketetan harreman eta



sinergia garrantzitsuak sortzen dira. Lau: Getxon ekintzaileetza proiektuak sortu nahi dituztenei zuzendutako informazio jardunaldiak. Bost: EKIN SILVER ECONOMY programa. Horren bitartez, berrikuntzaren eremuan sortzen diren aukera berriak lantzen ari dira. Sei: GETXO COWORKING, Getxon lan egin ahal izateko erremintei, babesari eta aholkularitzari buruzkoa. Zazpi: SITEC programa, Getxoko turismo enpresei informazioaren teknologien erabilera optimizatzeko erraztasunak emateko. Konpromisoak betetzen ari gara, enpleguak eta ekonomiak ardura eta kezka eragiten digutelako Getxo bultzatzen ari garenoi.



## ETXEBIZITZA

EH Bilduk eta Guk-Podemosek aurka bozkatu arren, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak behin-behinean onetsi du Ormazako hiri-lurzorua garatzeko proiektua. Horrek ahalbidetuko du babes ofizialeko 116 etxebizitza eta 145 etxebizitza libre eraikitzea; hau da, guztira 250 baino gehiago. Halaber, Sarrikobaso kalearen birsorkuntza plana azpimarratu behar da. Bertan 64 etxebizitza gehiago egitea dago aurreikusita, horietako 28 babes ofizialekoak. Horiek dira sozialisten udal taldeak Eusko Alderdi Jeltzalearekin egindako etxebizitza itunaren emaitzetako batzuk. Akordioak etxebizitza eskariari erantzuna ematen laguntzen du, bereziki udalerriko gazteei dagokienez. Horri esker emantzipatzeko laguntzak mantentzen ditugu; gazteen alokairua diruz lagundu eta hutsik dauden etxebizitzaren errolda sistematikoa egiten dugu, etxebizitzak irisgarriak eta ez oso garestiak izan daitezzen. Getxoko itun honek, alderdi sozialistaren Eusko Jaurlaritzako etxebizitza politikekin batera, gure gazteen etxebizitza arloko beharrei erantzuna ematea du helburu.



## 10.500€ HARTZ TXIKIENTZAT

Duela gutxi jakin genuen Getxon 10.500 euro publiko bideratuko direla alkoholdun gominolazko hartz batzuk ekoiztean datzan proiektu bat laguntzeko. Getxoko Ciudadanos udal taldeak horri buruzko hainbat galdera ditu: 10.500 euro horretara bideratzea erabaki egokia izan da Getxorentzat? Ez zegoen funts horiek bideratzeko beste aukera hoberik? Arduratsua da diru hori alkoholdun gominola batzuetarako bideratzea? Badirudi udalak ez duela eragozpenik dirua biltzeko eta gero oso eskuzabala dela guztiona den diru publiko horrekin. Tfnoa.: 944660291 Twitter: @CsGetxo.



## ERREGE MAGOAK MAIDAGANERA IRITSI DIRA



2019a albiste onekin hasi dugu. Bete gabeko aginduz eta erakusketa publiko faltsuez josita egon dira azken hamabi urteak, eta utzita eta egoera tamalgarrian dagoen espazio bat pairatu behar izan dugu. Bada, badirudi azkenean errege magoek jaso dutela herritarren gutuna; izan ere, gobernu taldeak Maidaganeko lursaila txukuntzea erabaki du. Atzamarrak gurutzatu eta dena geldirik ez geratzea eta proiektuak aurrera egitea espero dugu orain. Bizilagunek eskubidea dute duela hamarkada bat baino gehiago agindutakoaz gozatzeko: 2.151 m<sup>2</sup>-ko parke publiko bat, zuhaitzekin, argiekin, eserlekuekin, zakarrontziekin, 79 aparkalekurekin eta 64 etxebizitza sozialekin.



## EAJ-PSE, KONTROL ETA KOHERENTZIA BARIK

Abenduko osoko bilkuran GUKek mahai gainean jarri zuen *joko aretoekin eta hainbat apustu motarekin zerikusia duten adikzioekin* dagoen arazoa; hain zuzen, arazo hori gero eta handiagoa da Getxon. Gai hori errespetu handiz landu dugu, Bizkaian ludopatia duten pertsonen arreta eskaintzen dien elkarte bakarrarekin (Ekintza-Aluviz) hitz egiten eta entzuten. Oso abegitsuak izan ziren gurekin. Bertan egiazatu ahal izan genuen egoera zein larria den gai horri dagokionez, bai eta jokoak

eta apustuek ukitutako familiei eta pertsonen dagokienez ere. Eta are okerragoa dena: erakundeek baliabide oso eskasak jartzen dituztela arazo horien prebentzioan eta arretan lan egiteko. Horregatik, elkartearen aholkuei jarraituz, proposamen bat aurkeztu genuen arazo larri horretarako oinarritzko baliabideak bideratzeko. Baina osoko bilkuran izandako eztabaida eta emaitza benetan **penagarriak** izan ziren. EAJ gure proposamena baliogabetzen saiatu zen, eta erantzukizuna soilik Eusko Jaurlaritzarena zela esan zuen; PPK, propo-

samenak EH Bilduren punturen bat edo beste zuenez, ez babestea erabaki zuen. PSE azalpenik eman gabe isildu zen eta aurka bozkatu zuen, EAJk eta PPK bezala. Horren ostean, alkoholdun gominolazko hartzak saltzeko proiektu bat diruz lagunduko zela ikusi genuen. Badirudi gobernu taldeak ez daramala batere ondo etorkizuneko gure herritarren artean zorigaitz handiak eragin ditzaketen adikzioen prebentzioarekiko eta arretarekiko duen erantzukizuna. Harremanetarako: [guk@getxo.eus](mailto:guk@getxo.eus)



## LETXUGA-KIMUAK BANATUKO DITUGU ROMO-AREETAN ETA ALGORTAN

Hil honen 26an, Algortako Telletxe enparantzan eta Romo-Areetako Xake enparantzan egongo gara eguerdiko hamabietatik aurrera Udal Gobernuarekin hondakinen inguruan lortu ditugun neurriak jendeartean partekatze eta letxuga-kimuak banatzeko.

**UDAL GOBERNUAREKIN AKORDIOA**

- Organikoaren bilketaren aldeko etxeko kanpaina
- Getxon konpost gune bat ezartzea
- Gaikako bilketa egiten duten herritarrak saritzeko azterketa
- Kontenedoreetan ahoak zabalduko dira estalkiak ez albatzako

**LORTU DUGU!**

ehbildu  
GETXO